

Goi

Goierritarra aldizkaria

409 zenbakia 2011ko urriak 21



**AITOR
MERTXAN
ARTISTA**

FIELD TRIAL

HIL GABEKO EHIZA



Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net



KONTSULTAK:
NATUROPATA
AKUNPUNTOREA
DIETISTA

Nafarroa etorbidea, 5

Tel.: 943 16 21 10

BEASAIN





Aitor Sarriegi

Lanak

Lanak, bai, edo *Jobs*. Lanak dizkiat Steve Jobsen heriotzak (heriotza beti dek berri txarra) mundu osoan, eta gure txiki honetan ere, sortu duen zalaparta ulertzen. Iphone edo Ipad berriekin negarrez jaingo txiki berriaren

tenploetara joaten ikusi diat jendea telebistan, eta gure etxean sartu zen Macintosh Plus zaharrarekin gogoratu nauk, oraindik orain munduko idazmakinarik onena izaten jarraitzen dik. Bakoitzari berea, eta ez zioat ukatuko merkaturia irakurtzen asmatu izana, erosleei behar berriak sor arazi dizkien gizona izan dek, eta bere gailuak erosiz gainera pribilegiatu senti arazten ere asmatu dik. Ia ia elite bateko kide, amigo.

Bisionarioa izan dek, gainerako lurtarrok ez daukagun seigarren edo zazpigarren zentzu batekin edo, etorkizuneko beharrak irakurri dizkik, eta jendearen eskura soluzioak jarri. Ez dituk bakarrik ordea. Eta kasu batzutan ezta one-

Applek bere produktuak ez euskaratzeaz gain jadanik euskaratutakoak erabiltzeko

baimena ukatu zian bere garaian

nak ere; bai erakargarriak, politak, oso onak, baina ez bakarrik eta ez nahitaez onenak (hori sinets araztea ere lortu dik). Gure bezalako hizkuntza txiki batek ezinbestekoa dik guri horretara igotzea, eta alde horretatik kolonialista hutsa dek Appleren jarrera. Bere produktuak ez euskaratzeaz gain jadanik euskaratutakoak erabiltzeko baimena ukatu zian bere garaian; teknologiaren Einstein deitzen dioten honek jakintza itxi eta ordainpekoaren aldeko apustua egin dik, gizarteari eskaini ordez kobratu egin zioz eta erabiltzeko eskubidea soilik aitortu. Pausuak inportanteak dituk, baina ez norabidea baino gehiago.

Guk, bitartean, librexeago funtzionatzen dugunok, badizkiagu udazkenean bestelako lanak. Ari al haiz hireak egiten?



Iñaki Apalategi

lepa Aitor!

Guk ere badizkiagu lanak, bai. Guri ordea, ez txapelketan ez saioetan, besteek asmatutakoak hartu, moldatu eta jendeari birsaltzea ez duk bisionario izatea. Azeria, argia... izatea bai agian, eta horrek ere badike bere meritua, ezin duk hori ukatu. Ordainpeko jakintza ere baduk gurea askotan (askotan ez), eta ni ez nagok horren aurka, askotan dek dirua motibazio iturri bat (iturri bat batzutan, iturri bat

“Airetik ezin dek bizi” esaten ditek batzuek, baina besteak ainerik gabe uztetik ere ezin duk bizi, eta horixe duk jakituria itxia.

gehiago beste batzutan, eta bat ere ez beste batzutan; egiten ari haizenarekiko duan enpatia eta konpromezuaren arabera).

“Airetik ezin dek bizi” esaten ditek batzuek, eta egia duk, baina besteak ainerik gabe uztetik ere ezin duk bizi, eta horixe duk jakituria itxia. Ez diat Galileo imajinatzen geozentrismoa okerra zela deskubritu zuenean, ezagutza berria aditzera eman ordez, mareen taulak aurreikusten ditian enpresa bat sortu eta bertatik bizitzen, zerura begiratze hutsa ere patentatuz, beste inork ez dezan berak ikasteko aukera izan duen hura ikasteko aukerarik izan. Gaur egun Jobs santuak bezala, besteek ez jakitetik bizi nahi dik jendeak, haiek jakitetik bizi beharrean. A ze bisionarioa begiratzen uzten ez diana, ezta?

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,
Itsasondo eta
Ligorretakoko udalak



Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Zientziak fenomenoak deskribatzen ditu.

Ordea, fenomeno horien azpian dagoenaz zer?

Inork ez daki ezer substantziaren benetako esentziaz.



Rufino Iraola

Neutrino sorgin horiek! Gogoetarako bidea

Dakizuenez, berriki «demostratu» dute argia baino bizkorragoa dela 'neutrino' izeneko partikula. Oraingoan ez dute egin Ipar Amerikan esperimendua, baizik eta European, konkretuki Suizako 'Conseil Européen pour la Recherche Nucléaire'n, euskaraz INKE? –Ikerketa Nuklearrerako Kontseilu Europarra–. Hamaika herrialdetako 160 adituk hartu dute parte. Kasik atzemaizekin dira «bitxo» horiek, baina hor zegoen hipotesia 1930ez geroztik, Wolfgang Paulik formulatua, eta 1956 aurkitu zituzten.

Gauza harrigarriak badira, baina haxe ere! Materia, neutrinoarentzat, transparentea da; esate baterako, kristala argiarentzat bezalatsu. Eguzkiaren nukleoan sortzen dira neutrinoak, fusio nuklearen erreakzioetan. Dirudienez, arrunt ugariak dira Unibertso osoan. Zalentza egon da –kasik gaur arte– neutrinoak masarik ba ote duen. Azkenean, fisikoez erabaki dute baduela masa, nahiz eta hagitz txikia den. Elektroiak baino hamar mila aldiz gutxiago pisatzen du.

Orain falta den bakarra, hipotesia baieztatzea; beste aditu batzuek frogatzea. Urte batzuk joango dira oraindik horretan. Baina, azkenik, frogatuko balitz, erlatibitatearen teoriari berari erasango omen lioke. Niri ez galdetu zergatik eta nola. Erositako prezioan saldu, besterik ez dut egiten.

Jende askok esango dit nola arraio! ausartzen naizen gauza horiei buruz mintzatzeraz. Oso erraza. Imanol Lazkanoren teoria aplikatzen dut: «Zoazte lasai –epaimahaiko–, ez duzue asmatuko eta!» Zergatik ez dugu hitz egingo neutrinoaz, Jainkoaz hitz egitera ausartzen bagara? Ez dakit ohartzen garen, baina zer dakigu egunero erabiltzen ditugun hainbat aparatari buruz? Zer dakigu, adibidez, ontzi-garbitzekoaren barne funtzionamenduz, GPSaz, elektrizitatea zer den, klinikan aztertzen gaituzten hainbat makina eta laborategiren gainean? Zer ulertzen dugu kolesterola altu edo ondo daukazula esaten digutenean? Nola irudikatzen duzu, planeta hau, unibertsoarekin konparatuta, hondar-ale bat baino txikiagoa dela esaten dizutenean? Edo milaka milioi galaxia daudela aditzen duzunean? Zergatik ez du izan behar 'neutrino' hitzak 'hidrogeno' bezain normala?

Hain zuzen, zer dakigu hidrogenoa eta oxigenoari buruz? Ura da bi elementu horiek elkartzen diren likidoa, baina parodoxikoki, ura begiraturik, ikusita, ez dakigu deus ere bi horiek, banaka, nolakoak diren. Kimikoez jakingo dute. Beraz, inolako alternatibarik gabe, kimikoei sinestera behartuak gaude.

Aurreratu dugunez, ia-ia tutik ere ez dakigu «egunero» esku artean dtugun aparatua asko eta askoren barne izaeraz. Eta nola

konpontzen gara? Irudimena erabili behar izaten dugu. Gauzak irudikatu egiten ditugu. Ez dago beste erremediorik. Gehiago esango nuke. Zientzialariek zer dakite? Zientzialariek fisika kontuan, batez ere, matematika dakite. Zientziak fenomenoak deskribatzen ditu. Ordea, fenomeno horien azpian dagoenaz zer? Inork ez daki ezer substantziaren benetako esentziaz. Zientzialarien aurkikuntzei esker sortzen dira teknologia berriak; hala eta guztiz ere, nireari eusten diot: inork ez daki ezer fenomenoaren azpian dagoen historia, intentzioez, xedez... Eta oraindik aurkituko dituztenak! Galdera sinple bat, edo bi: nori zor zaizkio naturaren pontentzialitateak?, eta nork du oraindik aurkitu ez dugunaren kontzientzia? Transzendentala da bi galdera horiei erantzutea. Jainkoagatik esan daitekeen gauza bakarra da: DA. Akto hutsa da. Ez potentzia.

Egia esan, gero eta fede gehiago behar da Jainkoan ez sinesteko. Baita guri erakutsi diguten Jainko horrengan sinesteko ere. Beraz, Orixek behiala esan zuen eran, «Jainkoaren bila» hastera noa. Jainkoa ez dago ezagutzerik, baina premiazkoa dut haren ideia berri bat, antropomorfismo guztietatik aldentua.

Zientziak, jakinekoez denez, informazio ugari ematen digu fenomenoaren gainean, baina gure sentimenduekin zerikusia duenari buruz ez digu ezertxo ere argitzen. Ez digu ezer esaten, era berean, gauzak honela edo horrela zergatik diren, direla baizik. Ez du ezer esaten ederrari edo itsusiari buruz, ona eta txarraren gainean. Erakutsiko digu sendatzen, baina medizinarik sortzen dituen problema asko ez ditu konpontzen zientziak, etikak baizik.

Jainkoa eta gizakiarekiko lotura kulturen ikusten da. Kulturak lau eremu nagusi ditu: zientzia, filosofia –teologia filosofiarenean barnean dago–, artea eta mistika edo espiritualtasuna. Kulturaren parte horiek, bakoitzak bere erara, uztartzen dute batura. Horiek dira izatearen lau hankak, izatearen etxearen lau hormak. Den guztiaren adierazle eta espresio. Bakoitzak bere funtzioa du: zientziak fenomenoak deskribatuko ditu, teknologiarik oinarria eskaini, baina beti zerbait ezkutuan utzita; ez hala nahi duelako, besterik ez duelako baizik; filosofiak, batez ere, arrazoiaren bidez interpretatu egin behar ditu gertakariak, filosofiak erregulatatu behar ditu gizakien arteko harremanak, pluralismo eta lege egoki eta zuzenen bidez, besteren ideia eta pentsakera errespetatuz...; arteak lagundu behar digu barruan daramagun izaki kreatzailea ateratzen, bakoitzak bere espresibidearen esparruan; arteak igo egiten gaitu duintasun mailan, gerturatu egiten gaitu Adimen Unibertsalera, kreazioaren parte hartzea da...; eta mistika edo espiritualtasunak, azkenik, dena uztartzen du, gizakiari dimentsio totala emanez, eliza eta kredo guztien gainetik; espiritualtasuna da Misterioan murgiltzea, lotura absolutua...

Bera / berdina

Maizpide euskaltegia

Maiz antzean nahasten ditugu. Nola behar dute? Ea ondorengo egoerek ulertzen laguntzen duten...

- 1. egoera:** Anek eta Josunek ezkontza berean egin dute topo. Elkar ikustean barrez (negarrez ere izan zitekeen) hasi dira, bataren soinekoa bestearen **berdina** dela jabetzeaz (**bi soineko, berdin-berdinak**).
- 2. egoera:** Aneri izugarri gustatu zaio Josunek aurreko larunbateko ezkontzara eramandako soinekoa. Anek ezkontza izango du larunbat honetan bertan eta Josuneren soinekoa eraman nahi du soinean. Honek utziz gero, soineko **bera** eramango du (**soineko bakarra**).

Bera hitzak badu, bestalde, beste zeregin bat: aurreko hitzak adierazten duena azpimarratzea. Horrelakoetan aurreko hitzak ere hartzen du deklinabide-marka. Adibideak:

- a) *Aurreko astean Donostiako alkatea izan genuen Ordizian. Datorren astean ere bera izango dugu. Hau da, **alkate bera*** (aurrekoan etorri zena) etorriko da atzera.*

Eta horrela: **sukalde berean sartu zen** (aurrekoan sartu zen sukalde berean, eta ez beste batean), **kale beretik joango gara** (aurrekoan joan ginenetik)...

- b) *Aurreko astean Donostiako zinegotzi baten bisita izan genuen Ordizian; datorren astean, ordea, **alkatea bera** etorriko da. Hori oborea, hori!*

Eta horrela: **alkatearekin berarekin bitz egiteko aukera izango da, alkateari berari galdetuko diogu, sukaldera bertara sartu da eskalea** (sarrerako atea ireki eta sukalderraino sartu ez da, bada!), **kalean bertan saltzen dute droga hori** (ez dugu diskoteketara eta horrelako lekuetara joan beharrik hori ikusteko)...

*bera edo berbera!

Ez da gauza bera:
hezur bera... edo
hezur berdina!



ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Markel kapusai berdina jantzita etorri da aste osoan.
2. Irakasleak beti gauza berdina esaten dugu.
3. Hil berdinean ezkondu ziren bi bikote horiek.
4. Pello Errota eta Txirrita alkandora (alkondara) bera jantzita joan ziren bertso-afari horretara.
5. Goieritik bertatik pasako omen da aurtengo Tour-a.

OHARRA: Azkena izan ezik, denak gaizki! Laugarrengoan bi alkandora gutxienez izango ahal ziren!



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Iñautsi Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk1 KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



Euskal Herriko hil gabeko oilagor txapelketa jokatu da Aralarren urriaren 29an eta 30ean

“Txakurraren ibilera eta estiloa, ehizerako grina, usaimenaren indarra eta trebakuntza baloratzen dira field trialean”

Hil gabeko arrantza egiten den filosofia berdinarekin dator hil gabeko oilagor txapelketa. Euskal Herrian field trial elkarteak Euskal Herriko txapelketa antolatu du, bi probekin: lehena, Enirio-Aralarren izango da urriaren 29an eta 30ean eta bigarrena, Iratin, azaroaren 5ean eta 6an. Bi probetan puntuaketarik handiena lortzen duenak, Euskal Herriko Basoetako Dama saria jasoko du. Goierrin bada talde bat, ehizeko modalitate honetan aritzen dena. Espezieak babestearekin batera, ehiztarien artean beste kontzientzia bat ere zabaltzeko nahi dute: gozatzeko, ez dagoela hil beharrik. “Ehizeko txakur on bat” edukitzea nahikoa omen da lehiaketa hauetan parte hartzeko.

Hego Euskal Herrian modalitate berria da field triala edo hil gabeko ehiza. Ipar Euskal Herrian, dagoeneko 20 urte daramate eta Iparraldeko eta Goierriko hainbat ehiztariaren artean sortu den loturatik, Goierrin ere, field trial proba antolatzea erabaki du Euskal Herrian field trial elkarteak. Horretan burubelarri ari dira lanean Ion Urteaga ormaiztegiarra, Joxe Ramon Aranburu itsasoarra, Jose Luis Aranburu gabiriarra eta Beñardo Zubizarreta tolosarra. Nafarroa Behereko Donapaleu herriko Ttitto Aizager dute laguntzaile. Lehiaketa honen aitzakian, field trialaren filosofia gizarteratu nahi dute.


Elkarlan horretatik Euskal Herriko Basoetako Dama saria antolatu dute. Iratin eta Aralarren jokatu diren bi probetan puntuaziorik altuena lortzen duena izango da Euskal Herriko Basoetako Dama. Aralarko proba urria-

ren 29an eta 30ean jokatu da eta Iratikoa, azaroaren 5ean eta 6an. Ehize mota hau zertan den azaltzeko, boskoterekin hitzordua jarri dugu, Zaldibiako Goizanen, Txindokiren begiradapean.

Bikoteka

Oilagorren kasuan, udazkenean egiten den field triala da. Basoan egiten da. Lareotik Nafarroako mugaraino arteko basoa aukeratu dute. 3.359 hako pagadia. Malkartsua. “Oilagor ehizera” erabiltzen den basoetan izaten dira field trialak, baina txakurraren lana ikusteko modukoa izan behar du basoak. Enerioko proba pagadian izango da, txakurrak ondo ikusten dira-eta. Oilagorrek edozein lekutan egon daitezke, baina oilagorrek aurrera joateko lekua izan behar du”.

Bikoteka egiten den proba da. Bikotea lanean ari den bitartean, gainerako par-



Ingalaterratik datorren ohitura

Duela 100 urte baino gehiago sortutako lehiaketa da field triala. Ingalaterran sortu zen, ehiz txakurrik onenak aukeratzeko helburuarekin. “Txakur bakoitzeko onenak hartzeko, hazitarako erabiltzeko”. Ingalaterran sortutakoa izanagatik, momentu honetan, “potentzia fuerteenak Italia eta Frantzia izango dira. Estatu Espainiarrean izaten dira lehiaketa batzuk, duela 5 bat urte hasita”, zehaztu dute.

Ehiz txakur lehiaketa ezberdinak

Field trial ezberdinak daude: udaberrikoak, udakoak eta udazkenekoak. “Udaberrikoak normalean, Toledon eta Andaluzian egiten dira, udaberrian, soroan, eta eperrekin. Oilagorretako lehiaketei udazkeneko lehiaketak deitzen zaie. Mendikoak ere badaude, udakoak, Pirinioetan eta Alpeetan egiten direnak, eper grisa eta basaoilarrarekin egiten direnak. Azken finean helburuak berdinak dituzte baina modalitate ezberdinak dira”.

Aizagerrek jakinarazi duenez, “profesionalak badira field trialetan. Ez bakarrik hazkuntzan, hezkuntzan ere bai. Erakasten diete txakurrei nola ibili behar duten. Batez ere udaberrikoetan. Udazkenekoa, herrikoia goa da”.

“Basoan egiten da, bikoteka, bi txakur nagusi beraien zakurrekin. 15 20 minutuko txandak izaten dira. Basoa arakatu behar dute, gutxi gorabehera modu ordenatu batean, eta oilagorra aurkitu”.



“Ez dago hil beharrik gozatzeko”

Zenbakietan pentsatzen zuten ehiztariak izandakoak dira bostak ere. Baina ehizerako zaletasunari uko egin gabe, txakurrarekin mendian gozatzeko beste modu bat aurkitu dute: hil gabeko ehiza, arrantzan egiten den bezala. “Beste kirol mota bat da, beste gauza batzuk egiteko aukera ematen du. Disfrutatzeko beste era batzuk. Ez dago hil beharrik gozatzeko. Jendeari proba hauek badaudela erakutsi nahi diegu. Datorren urtean lau gehiago baldin bagara hobe eta kontzientzia piska bat aldatu nahi dugu, botatzeko obsesio hori baztertu”, diote.

Goierritarrek hasi berriak badira ere, Ttotti Aizagerrek urteak daramatza ehizarekin gozatuz: “Duela 20 urte hasi nintzen. Frantzian orain dela 20 urte ere, hemen bezala zen. Txakurrak anitz begiratzen ditugu nola ibiltzen diren”.

Proba honekin, ehiztariak kontzientziatu nahi dituzte. “Hemen kontzientzia izan da, ehizera joan eta nola edo hala botatzea. Beti kopuruari eman zaio garrantzia. Gaur egun, batetik, sozialki ehiza nahiko gaizki ikusita dago, mentalitate horrekin behintzat; eta bestetik, espeziek ez dira betirako eta zaintzeko kontzientzia horrekin hasi ginen. Beharrezkoa da momentu honetan Euskal Herrian ehizarekiko dagoen kontzientzia aldatzen joatea. Ahal den bezala, asko botatzeko filosofia zaharkituta gelditu da, eta espezieak ere ez dira betirako”.

Aukera honek gainera, “urte osoan ehizean” ibiltzeko aitzakia ematen duela diote. Hemen, betiko ehiztariak 3 hilabete egingo du ehizean, eta gero txakurra lotu eta han edukitzeko du hurrengo negura arte. Modalitate honek pixka bat behartzen zaitu txakurra beti forman edukitzea, mendian ibiltzea, entrenatzea... Konturatzen zara, zure botatzeko behar hori ere jaisten joaten dela. Benetan txakurrak gustatzen bazaizkizu, kateatzen joaten zara. Ez diogu ehizeari uko egiten, oraindik ere ehiza egiten dugu, baina beste filosofia batekin. Ez dago botatzeko behar hori”.

Iparaldekoekin harremanak estutu

Beste helburu bat ere badu Euskal Herriko field trialak: “Iparaldearekin ere loturak sortu eta estutu nahi ditugu. Mugak baditugu gure buruan, baina hortxe gaude, ondoan. Kultura handia daukate, oso txakur onak dauzkate. Hain

gertu egonda, ez gara ezagutzen”, diote goierritarrek. Harreman onak dituzte: “Nik ez daukat deus gordetzeko. Nik daukadan altxor txiki hau banatu nahi dut”, gaineratu du Aizagerrek. Segurako Iparra-Hegoaren bitartez harremanak ere omen badituzte Goierrirekin.

Harreman horien harira, bitxikeria bat kontatu du Ion Urteagak. “Iratin, bi egun pasa nituen Iparaldeko batekin. Nik nekien frantses apurra eta hark zekien gaztelera apurra-ekin, ulertu ezinda. Bukaeran konturatu ginen biok euskaraz genekiela”.

Hil gabeko ehizerako lekuak

Webgunea egin dute, Euskalherrianfieldtrial.com eta 75.000 bisitatik gora izan ditu dagoeneko. “Interesa eta kezka bada-go. Denetik entzuten dugu baina nik uste gazteen artean gero eta zabalduago dagoela”.

Hil gabeko ehiza bultzatzeko egokia ikusten dute goierritarrek, arrantzan egiten den bezala, hil gabeko ehiza egiteko lekuak jartzea. “Horrek indartuko luke”, diote.

Iparaldeako esperientziaren arabera, beste neurri bat hartzea ere egokia ikusten dute: oilagorren ehiza mugatzea. “Pertsona bakoitzak, urtean, 8-10 oilagor botatzeko muga jartzea. Iparraldean badago muga hori, egunean bi eta 30 urtean oilagorrekkoa. Iaz hain gutxi izan zirenez, 15 oilagorretara mugatu zuten. Gaur egun hori ez dago planteatzerik baina denborarekin etorriko da”, diote itxaropentsu.

“Beharrezkoa da Euskal Herrian ehizarekiko dagoen kontzientzia aldatzen joatea. Ahal den bezala, asko botatzeko filosofia zaharkituta gelditu da, eta espezieak ere ez dira betirako”.

tehartzaileak eta ikusleak, atzetik joaten dira, txakurrak lotuta. "Mendi buelta bat iza-ten da", diote.

Behin sailera iritsitakoan hasten da lehia. Ion Urteaga ormaiztegiarra hasi da modalitate honen nondik norakoak azaltzen: "ehiz praktikoa deitzen zaion modalitatean sartzen da, heriotzik gabe, oilagorrek. Basoan egiten da, bikoteka, bi txakur nagusi beraien zakurrekin. 15-20 minutuko txandak izaten dira. Basoa arakatu behar dute, gutxi gorabehera modu ordenatu batean, eta oilagorra aurkitu. Oilagorra aurkitzen dutenean, jarri, muestra egin, muestra txakurrak direlako. Gidariak oilagorra uxatzen du, altxatzen da eta detonadore batekin airera tiro egiten du. Txakurrak gelditu egon behar du oilagorra hegaka hasten denean eta tiroa entzuten duenean".

Puntuazio ezberdinak

Lana neurtzeko epaileak izaten dira. Kasu honetan, hiru Frantziatik etorriko dira eta beste bi euskaldunak izango

bai. Oilagorra hegaka hasten denean txakurra gelditu egotea, pertsonak landu beharrekoa da, ez baita ehizeko txakur batek egin dezakeen gauza natural bat. Horrekin txakur-rraren hezkuntza baloratzen da".

Eskolako noten antzera neurtzen dute txakurren eta ehizatarien jarduna: ongi, oso ongi, bikain edo cac notak daude. "Notarik altuena cac da. Cac, txapelketarako jarraia ziurtagiria da. Bizpahiru cac-rekin, Txapeldun titulua lortzen da. Txapeldun titulu batekin gurutzatzen bada, genetikoki beste zerbait ematen du".

Iparraldeko 18 zakur

Enirio-Aralerreko proban 28 txakurrek hartuko dute parte; 14 ehiztari bikotek. Zakur britainiarrak izan beharko dute txakurrek, setterra edo pointerra.

Iparraldetik 18 zakur etorriko direla aurreratu du Titto Aizagerrek. "Oso txakur onak dira, sarituak diren txakurrak dira batzuk. Bat iaz txapelketa nagusia irabazia. Beste bat

"Oilagor ehiza ez da ehiz erraza. Ez dakigu non den, ez dakigu etorria den ala ez. Lehiaketa batzutan eremu guztia hutsa da, ez da deus".

dira. "Arrazari dagozkion ibilera eta estiloa, ehizerako grina, usaimenaren indarra eta trebakuntza hartuko dituzte kontuan. Lan ezberdinak hartzen dira kontuan. Adibidez, oilagorra hegaka hasten denean eta ehiztariak tiro egiten duenean txakurra gelditu egotea puntuatu egiten da. Beste puntu batzuk ere badaude: txakurrak erakutsi duen lana egiteko era, bai terrenoa ikusteko, jartzeko edo muestra egiteko era, bere arrazarekiko ea egokia den... Txakurra baloratzen da, eta txakuraren hezkuntza ere

Europako mendiko txapelketa ibilitalakoa".

Txakurrak onak izanagatik, eragiten duten hainbat faktore ere badaude. Besteak beste, oilagorrik baden ala ez den. "Gerta liteke lehiaketako egun guztian oilagor bat bera ere ez ikustea. Oilagor ehiza ez da ehiz erraza. Ez dakigu non den, ez dakigu etorria den ala ez. Batzutan eremu guztia hutsa da, ez da deus. Ibiltzen gira egun osoa deus ikusi gabe. Beste batzuetan, Iratin bezala, 12-13 ikusi ditugu eta zakur guztientzat bazen parada txori baten aur-



Euskal Herriko «Basoetako Dama» Saria

Field-Trial Enirio Aralar
Heriotz gabeko oilagor txapelketa
Antolatuntza: www.euskalherrifieldtrial.com

EKITALDIAK
Probaren antolatzailea eta mahaingurua
Data: Urtak 28
Ordua: 19:00
Lekua: Berritoa (Leizor)
Gait: Field-Trialak
Lanburuak: Iñaki Elorriaga, Garret Lacoste
Enirio-Aralar Field-Trialak
Data: Urtak 29 eta 30
Ordua: 08:00
Lekua: Aralar parke
Gait: Enirio-Aralar txapelketa
Lanburuak: Iñaki Elorriaga, Garret Lacoste

Laguntzaileak
Sati, Gait, TeCano, PREMIAN, EHzan, CHIPS, ODE, etc.

Urriak 28, ostirala:
19:00etan: Hitzaldia eta mahaingurua: Field trialak. Hizlariak, Iñaki Elorriaga eta Garret Lacoste. Ordiziako Barrena jauregia.

Urriak 29, larunbata:
08:00etan: Talde osaketa.
09:00etan: Irteera mendira.
09:30etan: Field trialaren hasiera.
14:30etan: Eguneko raporta eta sariak.
17:30etan: Lehiaketako txakurren erakusketa eta berauen estandarren azalpena Ataunen.

Urriak 30, igandea:
08:00etan: Talde osaketa.
09:00etan: Field trialaren hasiera.
14:30etan: Hamaiketako eta raporta sari banaketarekin.

Asteburuko ekitaldiak

Urriak 28, ostirala:

19:00etan: Hitzaldia eta mahaingurua: Field trialak. Hizlariak, Iñaki Elorriaga eta Garret Lacoste. Ordiziako Barrena jauregia.

Urriak 29, larunbata:

08:00etan: Talde osaketa.

09:00etan: Irteera mendira.

09:30etan: Field trialaren hasiera.

14:30etan: Eguneko raporta eta sariak.

17:30etan: Lehiaketako txakurren erakusketa eta berauen estandarren azalpena Ataunen.

Urriak 30, igandea:

08:00etan: Talde osaketa.

09:00etan: Field trialaren hasiera.

14:30etan: Hamaiketako eta raporta sari banaketarekin.

kitzeko", dio Aizagerrek.

Oilagorra, paseko txoria

Paseko txoria da oilagorra, eguraldiaren arabera etortzen omen da gurera. "Oilagorraren migrazioa eguraldiak baldintzatzen du. Europa Iparraldetik etortzen da. Usoarenaren tankerakoa da. Oilagorra etortzeko, European hotza egin behar du. Ipar ekialdeko haizea da onena. "

Momentuan espeziea galtzeko arriskurik ez badute ikusten ere, zaindu beharrekoa dela diote: "Gauza bat

badu txarra: inorena ez denez, denek egurra ematen diete. Araudi ezberdinak dituzten herrialde pila bat pasatzen ditu. Batzuk garai batean hasten dira ehizean, beste batzuk beste garai batean. Oraindik ez da kritikoa bere egoera, baina ez dakigu, orain arte bezala funtzionatuz jarraituz gero zenbat urtetarako egongo den", diote goieritarrek. "Jendea iparraldera, Suediara, Letoniara, Errusiara, ehizera joaten dira. Iturrirak joaten dira oilagorrak hiltzeko", gaineratu du kezka Aizagerrek.

A portrait of Aitor Mertxan, a man with a beard and a lip ring, wearing a black t-shirt. He is looking directly at the camera. The background is dark and out of focus, showing some greenery.

Aitor Mertxan
beasaindar pintorea
Beasaingo erakusketa
prestatzen ari da:

**“Pintzelkada
berezia daukadala
esaten didate”**

Azaroaren 4an Beasainen inauguratuko duen erakusketa prestatzen ari da Aitor Mertxan pintore beasaindarra. Pintura abstraktuan oinarritu izan da orain arte bere estiloa baina figuratiborako jauzia ere egin nahi du. Eraitza, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

31 urte ditu Aitor Mertxanek. Munduan barrena ibilia da pintura arloan hezten eta aberasten. Diseinu grafikoa, argazkigintza eta pintura arloak ikasi ditu. Etxera itzuli da eta bere lanak gertutik ezagutzeko aukera izango da azaroaren 4tik aurrera, Beasaingo Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan jarriko duen erakusketari esker.

Herrian aurkezpena egingo duzu beraz.

Ekel tabernan egin nuen erakusketa bat, duela 3-4 urte. Ordiziako Altarten ere bai, baina esan daiteke, Usurbe Antzokikoa, aurkezpen ofiziala izango dela. Leire Martinezek ere erakutsiko ditu bere lan batzuk.

Orain arte egindako lanak edo berriak ikusiko ditugu?

Arte Ederrak ikasketak egindakoa naiz eta dezente koadro ditut margotuta. Baina erakusketarako ere sortu nahi dut, ea denbora ematen didan. Lan handia da erakusketa antolatzea. Denbora ematen badigu, erakusketa aretoa eraldatzeko asmoa ere badaukagu. Ohituta gaude, koadro bat edo lientzo bat ikustea. Aldatu egin nahi dugu, pareta txuriak ez daitezela izan... Areto guztia, dena izango litzateke erakusketa. Jendea animatu egin behar da, daukagun ideiak azaldu.

“Arte Ederretako irakasleek abstraktua egiteko balio nuela eta horretara bultzatu izan naute. Orain figuratibora itzuli naiz eta lanen batzuk egin nahi ditut”.

Zein estilo landu izan duzu?

Arte Ederretako irakasleek abstraktua egiteko balio nuela eta horretara bultzatu izan naute. Orain figuratibora itzuli naiz eta lanen batzuk egin nahi ditut. Figuratiboa bai, baina nahiko abstraktoa ere izaten da batzutan. Pintura gehiegi ulertzen ez duenari nahiko abstraktoa irudituko zaio. Abstraktua oso zaila da. Ezetz iruditzen zaigu, pintzelada batzuk ematea besterik ez dela, baina askoz ere konplikatuagoa da. Nik uste arte figuratiboa baino askoz ere zailagoa dela. Heziketa falta nabari izaten da eta horrelako erakusketek balio izaten dute, jendea hemen ere horrelako gauzak egiten direla erakusteko.

Jendea kosta egiten al zaio abstraktoa ulertzea?

Ezin duzu denon gusturako margotu. Baina koadroaren arabera gehiago gustatzen zaio jendea. Argazkiekin ere berdina gertatzen da askotan. Jendeak, oso tipikoak diren gauzak nahi izaten ditu.

Abstraktua margotzea zaila dela esan duzu.

Suposatzen da ibilbide bat edukitzen duzula pinturan eta iristen zarela puntu horretara. Ezin da egun batetik bestera abstrakzioa pintatzen hasi. Ez dauka inongo logikarik. Abstrakzioan elementuak kentzen joaten zara, sinplifikatzen eta sinplifikazio horretatik irten liteke abstrakzioa. Horregatik da zaila, zer kendu eta zer jarri jakin behar baituzu.

Masa asko sartzen dut. Oso azkar pintatzen dut, masa askorekin. Abstrakzioan oreka bat egon behar du. Ezin duzu bi pintzelkada eman eta kitto. Hori baino gehiago da: oreka bat egon behar du, pisu berdina eduki behar du... kolorearen nahasketak ere logika bat eduki behar du. Konplexua da. Baina askotan ez da nahi dena pintatzen. Koadro bat pintatzen hasi eta ateratzen zaidana pintatzen dut. Orain erakusketarako erabaki beharra daukat zer margotu.

Lehen elementuak kentzen eta orain jartzen hasi zara berriro?

Horretan nago! Velazquezen bertsioak egiten ere ibili naiz.

ZAHARRA • BERRI

IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



Zuriñe
Ederginiza

MANIKURAK, PEDIKURAK, AURPEGIKO
TRATAMENDUAK, GORPUTZEKO
TRATAMENDUAK, MAKILAJEAK,
DEPILAZIOAK, BRONTZEZTATZEAK...

Urrian promozioa!

Tel.: 647 314 771
Garmendia Otaola, 5 - behe 3
BEASAIN



Niretzako onena da Velazquez, bere abstrakzio puntua ere bazeukan bere garairako. Teknika hori gustatzen zait eta teknika hori erabiltzen hasi naiz.

Estilo aurkitzen ari zara oraindik?

Pintura, azkenean, ikerkuntza bat da artea nire kasuan. Ez naiz estankatuta gelditzen, ez zait beti berdina pintatzea gustatzen.

Arriskatzeari gustatzen zaizu?

Bai, pixka bat bai. Goierrin, denetik dago, arriskatzen da, baina pintura abstrakzioa oso gutxi dago. Salamancatik etorri nintzeanean gauza oso garaikideak egiten zituzten. Hona etorri eta normalagoa den bezala, figuratiboagoa edo arruntagoa da. Baina denetik dago. Figuratiboaren barruan kalitate handikoa ere bai.

Koloretsuak dira zure koadroak.

Ilun-ilun margotzen hasi eta gero kolorearekin argitasuna, kontrastea, sartzeari gustatzen zait. Horrekin bolumena lortzen dut. Koadroa gerturatu eta lau pintzelkada dira baina urrundu eta bolumena sartzen da.

Urrutitik ikusi behar direla zure koadroak.

Bai. Nahigabe horrela pintatzen dut. Toki egokian jarritako lau pintzelkada dira. Kolore dezente sartzen dut. Ezagutzen nauen jendeak badaki nola pintatzen dudana. Fakultateko jendeak esaten dit, pintzelkada berezia daukadala, koloreak dezente sartzen ditut beti eta hori nabaritzen dela esaten didate. Oso azkar margotzen dut, ahal baldin bada, hasi eta bukatu.

Beti daude gauzak berritzeko eta hobetzeko, baina azkar margotzera ohitu naiz eta beste batekin hasteko gogoarekin egoten naiz.

Zein material erabiltzen duzu?


Pintzelarekin, oleoekin, margotzen dut gehiena. Akrilikoekin ere bai. Espatula garai batean asko erabiltzen nuen. Beti probatzen ibili behar da. Espatulak aukera ematen dizu masa asko jartzeko, zabaltzeko. Orain dela 400-200 urte pintzel txiki batekin margotzen zen. Beldurra galdu egin behar da, zuk kontrolatu behar duzu koadroa eta ez koadroak zu. Probatu egin behar da. Denetik jakin behar da.

Erakusketa batean koadroa ikusten ari den batek, hau zer da galdetzen dizunean, erantzutea erraza izaten al da?

Batzutan esplikatu beharra izaten da. Baina ez dago ulertu beharrik. Gustatzen zaizu ala ez. Askotan jendeak esaten du: nik ez dakit, ez dut ulertzen. Baina gustatzen zaizu ala ez. Zinez ulertzen duzu? Ez, baina pelikula bat gustatuko zaizu ala ez. Lehenengo pausoa da, koadro baten aurrean jarri eta gustatzen zaizun ala ez esatea. Gero hezten joango zara, baina hortik hasten da. Argazkiekin ere berdin gertatzen da, gustatzen zaizu ala ez. Egia da, abstrakzioa baldin bada, abstrakzioa nola iritsi den jakinez gero, atzean dagoen guztia baldin badakizu, hobeto ulertzen duzula. Baina gustatu ala ez da kontua. Heziketa falta dago eta hori da arazotako bat.

Estilo bat edo bestea gustatzen zaion jendea dago eta

“Abstraktua oso zaila da.
Ezetz iruditzen zaigu, pintzelada
batzuk ematea besterik ez dela,
baina askoz ere konplikatuagoa
da. Nik uste arte figuratiboa
baino askoz ere zailagoa dela.”



Argazkiak, margo lanak, marrazkiak, diseinu grafikoak... arlo ugari lantzen du Aitor Mertzanek.

normalean herritarari tradizionala gustatzen zaio. Pintatzen duen batekin elkartzen bazara, herritarrari gustatzen zaiona motz gelditzen dela esango dizu. Borroka bat dago. Nire koardroetan garbi-garbi ez da ikusten baina ulertzen da.

Koadro abstraktoa ikusi eta zer da hori, galdetzen dugu.

Askotan beharbada ezer ere ez da. Ez dauka askotan atzean ezer ere eduki beharrik. Koadro asko izaten dira titulurik gabekak, ez delako gauza konkretu bat.

Azkar pintatzen duzula esan duzu, aire libreko lehiaketetan parte hartzen al duzu? Beasainen bertan bada Arranok antolatutakoa.

Zailak dira. Ikusi dut, beti blokeatuta gelditzen naizela. Hiruzpalautan egon naiz eta beti blokeatuta gelditzen naiz. Presioa edukita hobeto lan egiten dut. Diseinu grafikoko lanean ere berdina gertatzen zait. Denbora gutxi daukadala jakinda hobeto pintatzen dut, baina lehiaketak beste kontu bat da. Zaila egiten zait. Ohitura falta dela esaten didate, askotara joan behar dela lasai egoten ikasteko.

Beasaingo aire libreko pintura lehiaketaz gain, beste lehiaketa batzuk ere badira Goierriin: Legorretakoa, Aterpe, Goiart, Segurakoa... Nolako mugimendua dago Goierriin?

Beti dago egiteko, baina mugitzen da zerbait. Gehiegi-gehiegi ere ez, baina mugitzen da. Lehiaketa hauek beti laguntzen dute, jendeak pintatzen duela ezagutzera emateko.

Pintore dezente zaudete Goierriin.

Gabonetan artisten topaketa egiten dugu eta denetik ikusten dugu, gazteak eta hain gazteak ez direnak. Hori ere ondo dago. Bakoitzak beste estiloa azaltzen du, gure artean hitz egiten dugu... afaria egiten dugu... giro polita egoten da. Talde horreko gazteenak garenak elkartzeko asmoa daukagu, erakusketa-aren bat egiteko edo ideia ezberdinak aurrera eramateko.

Telleriatarren eragina

Txikitatik margotu izan du Aitor Mertzanek. Beasainen bertan, Joxe Mari Telleriarekin lehenengo eta Jokin Telleriarekin gero aritu izan da pinturaren sekretuak ikasten. Bi irakasleen eragina nabari zaio gainera. "Beraien estiloak, nahi edo nahi ez, eragin handia izan du. Kolore asko sartzen ditut. Bakoitzak bere estiloa dauka baina eragina jasotzen da".

Pintura ikasketak gehiago sakontzeko, Arte Ederrak eta Artearen Historia eginga ditu, Gasteizen, Paduan (Italian), eta Salamancan. "Artea ezagutzeko gogoia izan dut beti. Artearen munduan mugitu izan naiz beti: dantzan ibilia naiz, bibolina ere jotzen dut..."

Diseinu grafikoan ere espezializatu da beasaindarra, pinturatik bizitzea oso zaila baita. Pinturak eta diseinu grafikoak ez daukate zerikusirik baina biak uztartzen saiatzen da. "Beste gauza batzuk egin behar dira. Nik afizio bezala egiten dut pintura. Enkarguz egiten ditut lanak. Batak bestearekin ez dauka zerikusirik. Diseinu grafikoak azkenean, publikitatea da. Kolore gutxi, ideiak zabaltzeko. Enkargu bat izaten da. Lan bat. Pintura pertsonalagoa da. Diseinu grafikoak helburu konkretu bat du: saltzea, jendea zerbituetaz enteratze a... Pintura saldu daiteke, baina beste helburu bat dauka, etxean zintzilik jartzeko-edo..."



Zazpi hiriburuak lotuz mendi ibilaldia

Bukatu du Goierriko mendizale beterano taldeak Euskal Herriko itzulia. Hiriburuz hiriburu, herriz herri eta mendiz mendi Euskal Herria hobeto ezagutzeko eta gozatzeko aukera izan dute. Hilean behin orri hauetan kontatu digute egin dutenaren berri. Orain, egitasmoa burututa, mahaiaren inguruan elkarturik, Juanjo Mujikak, Joxe Mari Barandiaranek, Pedro Irastorzak eta Koldo Auzmendik patxadan kontatu dute bizitako esperientzia.

Ibilbidea zenbakitan

35 etapa egin dituzte (16 etapa 2010 urtean eta 19 2011n). Guztira 930 Km eta ia 273 ordu (atseden eta guzti). Bataz beste etapa bakoitzean 26,6 Km egin dituzte 7 ordu eta 20 minututan, 1.065 metro gorantza eta 1.055 metro beherantz.

	Donostia Baiona	Baiona Garazi	Garazi Maule	Maule Iruñea	Iruñea Gasteiz	Gasteiz Bilbo	Bilbo Donostia	Guztira
Etapak	3	3	3	7	10	4	5	35
Gailurrak	7	8	9	22	36	23	9	114
Igoera (m)	3.265	2.890	3.670	7.865	9.530	4.820	5.315	37.335
Jaitsiera (m)	3.320	2.780	3.820	7.520	9.535	4.995	4.955	36.925
Luzera (Km)	99	82	72	172	256	120	129	930
Orduak	24:25	21:20	19:40	47:20	71:30	34:25	34:10	252:50

2010ean batatz beste 30 lagun joan zen irteera bakoitzean, 2011n 40 eta azken bi etapetan 46 mendizale. Astean behin egin dute irteera, eguraldia lagun, astearte eta osteguna bitartean. Beraz, horretarako astia dutenak dira denak, 60-70 urte arteko jubilatuak edo aurre-jubilatuak. "Astean etapa bat egiteko 2-3 egun aukeran edukitzea pribilegio bat da, oso gustura gabiltza funtzionatzeko modu honekin", azaldu du Barandiaranek.

Jarraitu beharreko bidea

Billabonako Ezkardi mendizale taldeak Mugalarirekin kale-ratutako liburua eta ondoren Lekeitioko mendizaleek GPSarekin ibiltzeko jarritako datuak erabili dituzte oinarri bezala. "Aurretik GR 10 eta 11 egin genituen, baina hura erraza da, ondo dago seinaleztatuta. Oraingoan, ordea, beldur nintzen nola moldatuko ote ginen, baina egia esan oso ondo moldatu gara", dio Barandiaranek. "Izan dugu etapa pare bat aldrebes samar ibili garena, baina orokorrean ederki atera da dena. Pinudietan zabaldutako pista dira okerrenak, hauek bidezidorrak moztzen baitituzte", aitortu du Mujikak. Ibilbidea seinaleztatzea ondo ikusiko lukete mendizaleek, baina ez dute batere erraza ikusten eta honen inguruan iritzi desberdinak sortu dira: mendiak markaz betetzen ari garela, bidegurutzetan zutikako seinaleak jartzea ondo legokeela... Hori bai, denak daude



Juanjo Mujika, Joxe Mari Barandiaran, Pedro Irastorza eta Koldo Auzmendi Ordiziako Mendizale Elkartean, mendiko bizipenak kontatzeko prest.

ados bidea seinaleztatzea baino zailagoa dela bide hori garbi mantentzea, eta horretarako adibide bezala jartzen dute Oriotik Donostiara doan bidea.

Ibilbidean zehar mota guztietako bideak aurkitu dituzte, ederrak, ez hain ederrak, ondo seinaleztatutakoak eta batere seinaleatu gabekoak ere bai. Ibilbideak duen trazu txarreneko lurraldea Bizkaia dela ados daude denak "etapa gutxiago egiteagatik edo ez dakit zergatik izango den baina pinudien eta zabaldutako pista ugarien artean bidea ezin aurkiturik ibili gara behin baino gehiagotan, batez ere Dima ingurura iritsi arte. Kosta aldera sartuz gero, ziurrenik bide gar-

biagoak egongo dira", baieztatu du Auzmendi. "Bizkaia da pinudi gehien duen lurraldea eta horiek garbitu ezean sastrakak, larra eta adarrak pilatzen dira", gehitu du Mujikak.

Paraje ederrak

Bizkaikorekin alderatuta guztiz bestelako egoera aurkitu dute Iparraldean, sasirik ez, bideak garbi eta gainera ondo seinaleztatuta daudela nabarmendu dute mendizaleek. Honela banan-banan bakoitzari gehien gustatu zaizkien parajeak nabarmendu dituzte.

Koldo Auzmendi Iparraldean izan du bereziki gustuko, "zoragarria da, nik ez daukat beste hitzik. Lehendik GR-10-a eta zenbait ibilaldi eginak

nituen, baina orain gehiago sartu gara eta zoragarria izan da. Ingurua garbia, bertako arbolak: haritza, pinoa, gaztaina... Ez dago hemen bezala pinudirik. Eta hori garbi mantentzeko abere asko dago: ardiak, behorrak, behiak... Herriak eta etxeak ere oso txukunak eta dotoreak dira. Niretzat ezezagunak zirelako edo, Arabako mendi kateak, ere oso ederrak dira, eta batez ere Kantabriako mendizerrako pagadiak".

Joxe Mari Barandiaran Koldok esandakoarekin guztiz ados dago: "Iparraldean zoragarria da. Niri batez ere Untzolak bidea Manttale pasata erreka bazterretik. Baita ere Santa Grazitik Lakorarako bidea Eujarreko

over Urraki
Bidaietan adituak

LAISTER WEB ORRI BERRIA:
www.urrakibidaia.com

Kale Nagusia 42, behe **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

ZEGAMA OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Inbaxusti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.
Ordizia: Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Ligorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxuz:** Dia, Belarain. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txitxiki, Uriarte-Pinedo.



Hurrengo erronka

Hurrengo erronka ere buruan dute mendizale beterranoek. Bi edo hiru urterako egitasmoa prestatzen ari dira: Nafarroako itzulia (Behe Nafarroa eta Nafarroa Garaia) mugaz muga. Zuberoa, Biarno, Lapurdi, Gipuzkoa, Araba, Errioxa, Zaragoza eta Huescarekin dituen mugetatik. "Hau Errenteriako Urdaburu eta Antxoko Jaizkibel mendi taldeak egin dute. 52 etapa atera zitzaizen pasaiatarrei. Hauek egin-dako lana esku artean dugu eta aztertzen ari gara. Oxxixen, Zuberoako mugan, hasi eta pixkana egiten joan. Eguraldiaren arabera, agian ez dugu dena jarraian egingo. Urtean 25-26 astetan eguraldi ona eskatzen du eta hori ezinezkoa da. Beraz, eguraldi txararekin atseden hartu beharrean Nafarroa hegoaldeko ibilbideak egin ditzakegu eta onarekin goi mendietakoak. Bestela 3 urtean egin beharko genuke, urtean 17 etapa eginda" aurreratu digu Mujikak.

**Goierriko mendizaleak
Berriain dagoen Euskal
Herriko erdigunean.**

**"Gomendagarria da, 13-16 urteko
gazteekin irteerak egitea.**

**Euskal Herria ezagutzeko aukera
ematen du. Ez dago derrigorrez**

**35 ibilbideak egin beharrik,
interesgarrienak aukeratu litezke"**

zintzurretik igo ginena, goroldioa berde-berde pagoetan gora... zoragarria da".

Pedro Irastorza aurrekoak bezalaxe Iparraldearekin txundituta geratu da: "Baina beste zerbait nabarmentzeko Kantabriako mendizerra esango nuke. Nik autoz Herrerako mendatetik pasata bakarrik ezagutzen nuen eta egia esanda asko du ikusteko, hango harrikariak, inguru malkartsua...".

Juanjo Mujikari zail egiten zaio leku bakar bat aukeratzeko eta zerrenda luzea nabarmendu nahi izan du: "Bidarraitik Garazirako bideak harritu nau. Gu ohituta geunden Iparla inguruetan ibiltzen, baina oraingoan barrurago sartu gara eta hor oso mendi ederrak daude:

Larla, Urtzilo... Eta bertatik oso ikuspegi ederrak daude Iparlara, Pirinioetara... Irulegiko mahastiak ere dotoreak dira. Beste nabarmentzekoa Burnikurutzeta-Arla ibilbidea da, Behe Nafarroa eta Zuberoa artean, eskaintzen dituen ikuspegiak ikaragarriak dira. Lili-Santa Grazi ibilbidea ere nabarmentzekoa da. Zuberoa garaiko mendiak ederki ikusten dira: Lakora, Anie eta Biarnoko mendiak. Bertako hiru harroilak (Kakoeta, Eujarre eta Harpidea) ikustea benetan da ikusgarria, zu 1.400 metro inguruan zoaz pareko mendizerran eta behe-rago hiru arroilak banan-banan agertzen joaten dira, benetan ikusgarria da. Burgi-Irunberri ibilbidea ere aipatu nahiko nuke

bere ikusgarritasunagatik. Erronkariarren abelbideetan ibili ginen eta zortea izan genuen, nahiz eta artzaina maldizioka ibili, artaldea transumantzia egiten harrapatu genuen. Ibilbide horretan Arbaiungo harroila aldenik alde pasatzen da, Irunberrira ura eramateko horma batean zabaldua dagoen bidetik. Beste bat ere aipatuko dut, Zizur Nagusitik Ultzurrunera Sarbil mendizerran barrena Etxauribar behean ikusten diren herri txikiak, urria zen, oso eguraldi ona egiten zuen, uso pase handia zegoen, kolore kontraste handiak ikusten ziren... Eta besteak aipatu duten bezala Arabakoak asko harritu gaitu".

Amaigabea da nabarmenduko lituzketen Euskal

Herriko zokoan zerrenda. Baina, horiek ikusteko modurik egokiena autobusean joatea dela diote Goierriko mendizaleek. Horrek puntu batetik besterako zeharkaldiak egin eta leku gehiago ikusteko aukera ematen baitu, derrigorrean ordu askotako ibilbideak egin gabe ere. "Gaur egungo gizartea geroz eta bakartiagoa da eta mendira ere jendea bakarrik edo talde txikietan joaten da. Ibilbide hau egiteko puntu batetik bestera joan behar denez, autobusa beharrezkoa da", dio Auzmendik.

Euskal Herria ezagutuz

Ikastolei, eskolei edo mendizale taldeei ibilbide hauek egiteko deia egin nahi die Juanjo Mujikak: "Guztiz gomendagarria da, 13, 14, 15

edo 16 urteko gazteak hartu eta irteeretan Euskal Herria ezagutzeko aukera ematen du. Ez dago derrigorrez 35 ibilbideak egin beharrik, interesgarrienak aukeratu litezke. Gu prest gaude datuak emateko, baita ahal izanez gero laguntzeko ere".

Ez dira paseoak

Beste zerbait ere garbi utzi nahi dute, ibilbide hauek ez direla paseoak, mendi ibilbideak direla, eta zenbait exijentzia maila handikoak gainera. Bai iraupen aldetik, baita gora bera aldetik ere (Batatz beste, etapa bakoitzean, 1.065 metroko igoera). Adibideak asko dira baina lehenengo etapa oso gogorra egin zitzaizen. Donostiatik Berara 39 kilometro izan

ziren, luzeena izan zen eta 1.520 metroko igoerak egin zituzten, itsaso mailatik atera eta Bianditz eta Larrun bezalako mendiak igoz. Bilbora iritsi zirenekoa ere nabarmendu dute, hura izan zuten gogorrena, igoera (1.800m) jaitsiera (1.880m) aldetik, gainera bero handia izan zuten aurtengo uztailaren 5ean egindako etapan.

Gizakiaren arrastoa

Ezusteko on asko aurkitu dute bidean zehar. Berriz ere Iruñetik hasi eta Burgosko mugataraino dauden mendizerrak aipatu dituzte: Lokiz, Kodes, Nafarroan eta gero Araban Kantabria Toloño, Tuio, Gorobel eta Orduña inguruak. “Azken inguru hauetan gizakiaren eskua oso nabarmena da, bide, pista eta etxe asko dago”, zehaztu du Mujikak. “Iparraldean ere mendietan pista asko dago, artzain txabola guztiek dute pista. Hemen Aralarren, berriz, begira zenbait artzain nola dabilen”, gehitu du Barandiaranek. “Iparraldean erraz irekitzen dute pista, horrek pixka bat desitxuratu egiten du. Baina zer nahi dugu, hemendik joan turistak eta dena birjina aurkitzea? Bertakoek ere bizi beharra daukate”, erantsi du Mujikak. Auzmendi ere ados dago aurrekoekin: “Ekologi aldetik ez dago oso ondo baina, Iparraldean egin dena da pistak egin eta bertako artzainei mendira igotzea erraztasunak eman. Hemen berriz, baserriak hustu dira eta mendiak pinuz bete, eta ondoren pinu horiek ateratzeko mendiak pistaz josi dira. Gakoa pistak egitea baino gehiago zein erabilpen ematen zaian da”.

Barandiaranek kultura aldetik ere asko ikusi eta ikasi dutela nabarmendu du: “Bidean, Itsasuko agiriaren oroitarria ikusi dugu. Orain bete dira 200 urte Xaho jaio zela, bada, harren jaiotetxea ikusi genuen...” Euskararen presentzia aipatu digu Mujikak: “Guk galdetu eta uste baino jende gehiagok erantzun digu euskaraz”.



Irailaren 27an Aizarna zebarkatzen

Azken 3 ibilbideen kronika

33. ibilbidea: Bergara - Lastur

Eguraldi onarekin, irailaren 21ean, asteazkena, 41 mendizalek, hegotik iparrerako norabidean, Deba eta Urola haranak bereizten dituen mendilerroan barrena ibili ziren, Debako Lastur auzoan bukatzeko.

Ibilbidea eta denborak: Bergara (150 m), Hirutxaboletako lepoa (394 m; 2,4 km; 45 minutu), Itsumendi gailurra (731 m; 4,8 km; 1:25), Santutxoko lepoa (610 m; 6,8 km; 1:50), Elosumendi gailurra (9, 6 km; 878 m; 2:35), Hirukurutzeta gailurra (899 m; 12 km; 3:20), Zarrikoetako lepoa (530 m; 14,4 km; 4:00), Azkarate mendatea (410 m; 16,2 km; 4:30), Madariaga auzoa (525 m; 18 km; 4:45), Orendaingo lepoa (640 m; 23,2 km; 6:20), Larraskandako lepoa (640 m; 23,6 km; 6:40), Lastur (150 m; 28 km; 7:40). **Gorabehera metatuak:** igoeran: 1.275 m; jaitsieran: 1.275 m.

34. ibilbidea: Lastur- Orio

Eguraldi bikainarekin, irailaren 27an, asteartea, 45 mendizalek, mendebaldetik ekialdera Urola, Altzolaras eta Oria haranetan zehar, Pagoetako Parke Naturalean barrena eta Ekain eta Altxerri kobazuloetatik gertu igaro ondoren, Orio bukatu zuten.

Ibilbidea eta denborak: Lastur (150 m), Ezteia baserria (360 m; 2,5 km; 45 min.), Otzarretako lepoa (410 m; 4,2 km; 1:05), Sastarrain base- rria (65 m; 8,6 km; 2:00), Zestoa (65 m; 10,5 km; 2:20), Aizarna (225 m; 13,5 km; 3:00), San Pelaio (300 m; 14,5 km; 3:25), Altzolaras jauregia (75 m; 16,3 km; 3:50), Urdaneta (35 m; 18,2 km; 4:25), Pagoetako gailurra (679 m; 21,5 m; 5:30), Aia, (325 m; 25,3 km; 6:35), Orio (5 m; 30 km; 7:30) **Gorabehera metatuak:** igoeran: 1.235 m; jaitsieran: 1.380 m.

35. ibilbidea: Orio - Donostia

Ibilgiro onarekin, urriaren 4an, asteartea, 46 mendizalek, Orio eta Donostiaren arteko itsasertza eta badiatxo politak ikusiz ibili ziren. Honenbestez, 2010. urtean hasitako zeharkaldi gogoangarria bukatu dute. Beraien iritzian, edozein taldeentzako guztiz gomendagarria den zeharkalda.

Ibilbidea eta denborak: Orioko hondartza (0 m), Itsaspe baserria (110 m; 2 km; 25 min.), Aiznal Haundi (115 m; 3,7 km; 50 min.), Plaiandi (145 m; 4 km; 1:25), Egiluze baserria (180 m; 5,7 km; 2:00), Agiti baserria (65 m; 6,8 km; 2:25), Perus jatetxea (110 m; 7,2 km; 2:30), Biosalbi badiatxoa (40 m; 10,3 km; 3:25), Leku Eder hotela (125 m; 12,3 km; 3:55), Ondarre- tako hondartza (5 m; 14,5 km; 4:15). **Gorabehera metatuak:** igoeran: 375 m; jaitsieran: 375 m.

Ordizia

Gaztetxearen 25. urteurreneko kontzertuak

Urriak 22, larunbata:

11:25ean: Aureskua eta poteoa, zanpantzarrekin, trikitilariekin, erraldoiekin eta albokariekin.

14:25ean: Bazkaria kanpoko frontoian. Ondoren, 'Batallita kontaketa'.

18:00etan: Plaza Nagusian, 'Porrotxen bihurrikeriak, marrubizko muxuak eta entzierroa eta Motxila 21 taldearen kontzertua.

18:00etan: Kanpoko pilotalekuan, musika, txosnak, ogitartekoak eta DJ Bull.

21:00etan: Barruko pilotalekuan, Laket, Revolutionary Brothers, Bizardunak, Obrint Pass, Egurra eta Kitto taldeen kontzertuak.

Abesbatzen kontzertuak

Urriak 29, larunbata:

20:00etan: Herbeheretako Egidius Kwartet taldea, Elizan.

Azaroak 1, asteartea:

20:00etan: Errusiako San Petersburgoko irati-telebistako haur abesbatza, Elizan.

Beasain

Jazpana fest jaialdia

Urriaren 28tik 31ra Beasainen, Bernedoenean, musika protagonista izango da. Beste hainbat ekintza osagarri ere izango da. Sarrera dohainik da.

Urriak 28, ostirala:

19:00etan: Argazki rallyaren hasiera.

19:00etan: 'Guitar hero' lehiaketa, Karpa txikian.

22:30ean: Kontzertuak: Atom Rhumba, Guadalupe Plata, Continuo Renacer, Lost Chords eta Olarius&Brothers Dj-ak.

Urriak 29, larunbata:

15:00etan: 3 x 3 saskibaloitxapelketa, Bernedoenean.

19:00etan: Arratsaldeko kontzertuak: The Nekrobabies eta Cuarto de Hora.

22:30ean: Kontzertuak: El Culpio Asesino, Los Tiki Phantoms, Willis Drummond, La Celula Durmiente eta Mether&Zacker Dj-ak.

Urriak 31, astelehena:

19:00etan: Beasaingo Film laburren emanaldia.

Ondoren: Jazpanaokea.

Tailerrak erretiratuen etxean

La Caixak, Erretiratuen Etxeak eta Udalak, lau tailer antolatutuzte erretiratuen etxean. Tailerrak doan dira eta parte hartzeko izena erretiratuen etxean bertan eman beharko da. Jarraian duzue egitaraua:

Adimena aktibatu:

17:30ean, urriaren 18an, 21ean eta 28an.

Irakurle handiak:

15:30ean, azaroaren 4an, 8an, 11n, 18an, 22an eta 25ean.

Adimena aktibatu:

17:30ean, azaroaren 4an, 8an, 11n, 18an, 22an eta 25ean.

Gizarte trebetasunak eta boluntarioria:

17:30ean, azaroaren 22an eta 25ean, eta abenduaren 2an, 9an, 13an, 16an eta 20an.

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Beasain

Udazken kulturala

Urriak 20, osteguna:

17:30ean: Ipuin kontaketa: Kamishibai. Udal Bibliotekan.

Urriak 21, ostirala:

18:30ean: Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariek lagunduta.

22:15ean: Antzerkia: Txalo produkzioak-en 'Baginaren baka-rrizketak'. Usurbe Antzokian.

Urriak 22, larunbata:

12:00etan: Ezkiagako II. Trikitixa eguna. Kalejira.

17:30ean: Beasaingo Musika Eskolako, Irungo kontserbato-rioko eta Auntxa Trikitixa eskolako trikitilariak, Ezkiagako frontoian.

19:00etan: Dantza jaialdia Aurtzaka dantza taldearekin, Gernika pasealekuko frontoian.

19:00etan: Loinatz abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zerutuaren Parrokian.

22:00etan: Kontzertua: Lost Chords, Chase de Mayhem eta Sodium Rama, Kiroldegiko Gazte Lokalean.

Urriak 23, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Mankomunitatearen ibilaldia.

18:30ean: Saloi dantzen erakustaldia Aguibaile Elkartearen eskutik, Gernika pasealekuko pilotalekuan. Antolatzailea: Dantzaki eskola.

18:30ean: Kale antzerkia, Bideluze plazan: Horzmuga talde-aren 'Libertia'.

Urriak 26, asteazkena:

18:00etan: Ipuin kontaketa helduentzat, Idoia Sanchezekin, Udal Batzar aretoan.

Urriak 27, osteguna:

21:00etan: Zine kluba: 'Miel'. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Goieniz zine kluba.

Urriak 28, ostirala:

18:30ean: Erraldoi eta buruhandien irteera txistulariek lagunduta.

19:00etan: Kantujira kalean zehar, Igartzatik hasita.

22:15ean: Antzerkia: Orratz taldearen 'Gatazka hasi da'. Usurbe Antzokian.

Urriak 29, larunbata:

17:00etan: Haurrentzako eskulan tailerra Joan Iturralde pla-zan. Antolatzailea: Txilibutxof.

19:00etan: Txistulari eguna: Goierriko txistularien kalejira.

19:30ean: Txistulari eguna: txistu kontzertua Goierriko txistu-lariekin, Gernikako pasealekuko pilotalekuan.

20:00etan: 'El león de oro' abesbatzaren kontzertua, Andre Mari Zerutuaren Parrokian. Antolatzailea: Loinatz abesba-tza.

Urriak 30, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Urbasa-Legunbeko begia-Urbasa. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale elkarte.

12:00etan: Haurrentzako pintura tailerra, Joan Iturralde pla-zan. Antolatzailea: Txilibutxof.

17:00etan: Haurrentzako zinea: 'Los pitufos'. Usurbe Antzokian.

Azaroak 1, asteartea:

17:00etan: Haur antzerkia Usurbe Antzokian: 'Arratoitxo pin-pirina'.


Azaroak 2, asteazkena:

09:30ean: Eskolaumentzako zinea Usurbe Antzokian: 'Mixina'.

19:00etan: Beasaingo Paperak bildumaren 19. zenbakiaren aurkezpena Igartza jauregian: Martin Garcia Garmendiaren 'Beasain 1862, trenaren bideetatik barna'.

Azaroak 3, osteguna:

17:30ean: Ipuin kontaketa Udal Bibliotekan: 'Remember, stories in November'.



Lan ber
LAN BERTIKALAK S.L.
San Bartolomé, 12 ORDIZIA
Tel.: 605 712 018
Tel.: 943 162 427
Web: www.lanbertikalak.es
Mail: info@lanbertikalak.es

fatxadak, teilatuak,
terrazak, kanaloaiak,
bajanteak...



Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa
HIZKUNTZA ESKOLA: INGELERA
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
TAILERRAK:
arreta, ulermena, ikasketa teknikak...
MEKANOGRAFIA

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120 - 685 722 403
ikaskide@ikaskide.net

Legorreta

Kultur astea

Urriaren 20tik aurrera:

Legorretako II. Pintura lehiaketan parte hartu duten lanen erakusketa, herriko tabernetan.

Urriak 26, asteazkena:

17:00etan: 'Munduko kulturak, munduko ipuinak' emanaldia, Liburutegian, Dar-Darren eskutik.

17:30ean: Hitzaldia: 'Erretiro aktibo eta solidarioa', Herri Zinema. Babeslea: Kutxa.

18:30ean: Buruhandiak.

Urriak 27, osteguna:

17:30ean: Hitzaldia: 'Zahartzea eta baliabide pertsonalak'. Herri zinema. Babeslea: Kutxa.

19:00etan: Buruhandiak.

19:30ean: Iñigo Zunzunegi legorretarrak aurkeztutako 'Guatemala' ikus entzunezkoa, Udaletxeko Areto Nagusia.

Urriak 28, ostirala:

16:30ean: Pote, igel eta toka txapelketa jubilatuentzat.

19:00etan: Buruhandiak.

19:00etan: 'Legorparty 2011' Ordenagailu topaketaren hasiera Patxi Ezkiaga Kultur Etxean.

23:00etan: Legorretako XVII. Mus txapelketa Bilkoin elkartean.

Urriak 29, larunbata:

17:30ean: Legorretako I. Kaleko atletismo erakustaldia (altuera jauzia, pisu jaurtiketa, abiadura eta hesiak).

19:30ean: II. Legorretako pintura lehiaketaren sari bana-keta.

20:00etan: IV. Film labur lehiaketara aurkeztutako lanen emanaldia Herri Zinema. Jarraian, Aitzol Aramaioren lanak ikusgai.

Urriak 30, igandea:

11:00etatik 14:00era: Kultur gaien elkartasunezko azoka. Lortzen den dirua, Udalak, 3. mundurako duen proiektuetarako zuzenduko da.

20:00etan: 'Legorparty 2011' Ordenagailu topaketaren amaiera Patxi Ezkiaga Kultur Etxean.

Zerain

Kultur astea

Urriak 22, larunbata:

11:00etan: Herriko haur eta gaztetxoentzat marrazki rallya eta jolasak.

14:00etan: Kantu-bazkaria, Dani eta Pello trikitilariekin: babarrun-jana, pilotalekuan.

19:00etan: II. patata tortila lehiaketa. Ondoren, afari-merienda pilotalekuan bertan egingo da.

Urriak 23, igandea: jubilatuen eguna:

13:00etan: Meza Nagusia. Joxe Agirre eta Patxi Etxeberria bertsolariek eta Uharka abesbatzak lagunduko dute.

14:00etan: Jubilatuen bazkaria Ostatur Agirre eta Etxeberria bertsolariekin.

Urriak 24, astelehena:

19:00etan: Hitzaldia: 'Erdal eragina gure euskarari' hitzaldia, Mikel Zalbide euskaltzainaren eskutik. Kultur Etxean.

Urriak 25, asteartea:

19:00etan: : Hitzaldia: 'Egoera ekonomikoa: nondik gatz, norantz goaz', Joseba Barandiaran ekonomialariaren eskutik, Kultur Etxean.

Urriak 26, asteazkena:

19:00etan: Hitzaldia: 'Ibiliz-ibiliz, bideak erakiz' Maria Ixabel Elorza antropologoaren eskutik, Kultur Etxean.

Urriak 27, osteguna:

19:00etan: Hitzaldia: 'Iruña Veleia auzia', Juan Martin Elexpuru filologoaren eskutik, Kultur Etxean.

Urriak 28, ostirala:

19:00etan: Mendiari buruzko bideo emanaldia, Kultur Etxean.

Urriak 29, larunbata:

09:30ean: Mendi ibilaldiaren artea plazatik. Barbari aldean markatutako ibilbidean zehar egingo da artea.

11:00etan: Hamaiketakota Urubin.

19:00etan: Mixel Etxekopar musikari zuberotarraren emanaldia elizan.



**ARANDIA
GARAJEA
MULTIMARKA**

ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK

N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47



PSIKOLOGI KLINIKOA

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak

Idiazabal

Gipuzkoako Bertsolari
txapelketako saioa urriaren

Igarondo pilotalekuan, urriaren 30ean, arratsaldeko 5,30etan izango da Gipuzkoako Bertsolari txapelketako final laurdenetako saioa. Jon Martin, Uxue Alberdi, Nerea Elustondo, Ainhoa Agirreazaldeggi, Felix Zubia eta Oier Aizpurua arituko dira lehian. Gai jartzen, Inaxio Usarralde arituko da.

Beasain

Lau t'erdiko pelota txapelketa

Aspek eta Beasaingo Ikastolak antolatuta, Lau T'erdiko bi partida jokatu dira Antzizar kiroldegian, gaueko 10,30etan hasita. Lehenengoa Lau T'erdiko promozioako partida jokatu dute Rico IV.ak eta Mendizabal II.ak. Ondoren, Lau t'erdiko txapelketako final-laurdeneko partida jokatu dute Abel Barriolak eta Julen Retegik. Sarrerak 25 euro balio du eta Antzizar Kiroldegiko lehiatilan eros daitezke.

I. Errelebo lasterketa

Bealak, Beasaingo Lasterkariak taldeak, haurrentzako I. Errelebo lasterketa antolatu du. Urriaren 29an izango da, goizeko 10,30etan hasita, Dolarearen inguruan osatu duten zirkuituan. Benjamin eta alebin mailako hurrek, 4 x 120 erreleboak egin beharko dituzte. Izen ematea, egunean bertan egin behar da; 10:00ak baino lehen.

Zaldibia

Ardiki eguna, urriaren 30ean

Urriko azkeneko igandean, urriaren 30ean, Ardiki eguna ospatuko dute Zaldibian. Ohi bezala, Zaldibiako XVII. Mondejuaren lehiaketa eta XIV. Aralarko Gaztaren lehiaketa izango dira. Bi lehiaketan bueltan, ondorengo egitaraua prestatu dute:

10:30ean: Diana. Herriko txistulari, Xapre eta Furriela, Juan Mari Beltran, Astiazaran aita alabekin taldean eta Hernaniko musika eskolako albokolari, dultzainero eta txistulariak alaituta.

Goizean: Artisautza erakusketa: ardi gazta, mondejuak egiten, artilea lantzen, telarra, galtzerdiak egiten, zestoak egiten, aida idiok...; ganadu erakusketa: ardi eta ahari loteak, pottokak,... eta salmenta azoka izango dira.

12:00etan: Zaldibiako XVII. Mondeju eta XIV. Aralarko gaztaren lehiaketak. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertso kantari direla mondejuak dastatu ahal izango dira herriko plazan.

13:30ean: Sari banaketa.

14:30ean: Bazkaria. Herriko jatetxeetan mondejua, ardikia saltsan, ardikia erreta piparrekin, gazta, ardoa, kafea, kopa eta purua. Bazkariko txartelak herriko jatetxeetan daude salgai.

19:30ean: Lagunarteko kalejira, 2011ko Ardiki Egunari amaiera emateko.

21:30ean: Ardiki Egunaren amaiera.

Ordizia

Haurrentzako masaje tailerra

Azaroaren 4an hasiko da Ordizian urtebetez azpiko haurrentzako masaje ikastaroa, Udaleko Euskara Zerbitzuak seigarren urtez jarraian antolatuta. Masaje tailerra, EBPnren (Euskara Biziberritzeko Plana) barruko ekintza da eta familia bidezko hizkuntzaren transmisio bideak indartzea du helburu. Jone Beitialarrangoitia psikoterapeuta legazpiarrak emango du masaje tailerra, zazpi saiotan. Hain justu ere, honako egunotan: azaroaren 4an, 8an, 11n, 15ean, 18an, 22an eta 25ean. Masaje tailerrak 30 euroko kostua du eta ordu eta laurdeneko iraupena izango du saio bakoitzak (10:00etatik 11:15era). Barrena Kultur Etxeko 7. gelan emango da ikastaroa. Informazio gehiago nahi duenak 943 80 56 22 telefonora dei dezake, edota ebpn@ordizia.org helbidera idatzi.


ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformak...

www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA


Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko menua



© 943 88 77 26 ALTZAGA


KIKO ENEA taberna

Ostiraletan eta larunbatetan
plater konbinatuak
Bazkari eta afariak enkarguz

Gipuzkoa, 13
T. 943 08 48 11
ORDIZIA




Ormaiztegitar taldea 1934. urte inguruan

Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera: Joxe Luis Borde eta Katalina Urbil (Manzisor sendiko arrebaordekoa).

Erdiko ilaran: Fermin Irizar Bengoetxea, Juan Garmendia (Juanito Kantinas, egunkari saltzailea) eta Joxe Mari Irizar Bengoetxea.

Aurrean, eskuinean dagoena: Joxe Azurmendi.




MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



SILVIA MIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



TTI

TTA

T 943 88 00 00
 Kale Nagusia, 18
BEASAIN



Eguneko menua
 Plater konbinatuak
 Ogitaratekoak
 Menuak enkarguz



GOIERRIKO hitza info

Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
 urtean 29 euro

HITZA ☐
 urtean 70 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
 urtean 75 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:		• N A :	
• Lanbidea:		• Jaioteguna:	
• Helbidea:		• Herria:	
• P.K:	• Tel.:		
• Posta elektronikoa:			
• Kontu zenbakia:			



Toyota Auris Híbrido HSD *berria*

zatoz ezagutzera!



EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel.: 943 805 926
BERGARA - ELGOIBAR - PASAIA - Tel.: 902 345 245



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es